

HASI DIRA BILBOKO 2026KO ARATUSTE AK



Imanol Ituiño de Miguel eta Mertxe Gil Vallejo izango dira Inauterietakopertsonaia nagusiak

2026ko Bilboko Aratusteen egitarauak ia 50 jarduera bilduko ditu, eta kolorea, umorea eta jai giroa eramango ditu Hiribilduko hainbat gunetara, hala nola **Kale Nagusia, Alde Zaharra, Arriaga plaza, Plaza Barria,** besteak beste.

Sei eguneko ospakizunetan, hiriak adin guztietako publikoarentzat pentsatutako askotariko proposamenak eskainiko ditu, Bilboko Aratusteen izaera parte-hartzaile, herrikoi eta hurbila sendotuz.

Otsailaren 13an, ostiralean, goizez, **ikastetxeen desfilea** egingo da, ondoren txokolatada eta haur ikuskizun batekin, kaleak kolorez eta dibertsioz betez. Arratsaldean, **Farolin eta Zarambolasi epaiketa** egingo zaie, egitarauko ekitaldirik enblematikoenetako bat.

Ez dira faltako **Erraldoiak eta Buruhandiak, Gargantua**, haur tailerrak, **Udal Musika Bandaren** ohiko ikuskizunak (astelehenean, otsailak 16), **Txistularien Udal Bandaren** emanaldia (asteartean, otsailak 17), ezta euskal dantzak, kontzertuak, dantzaldiak, fanfarreak eta mozorro jarduerak ere.

Jaiak **otsailaren 17an, asteartean**, amaituko dira, arratsaldean egingo den **sardinaren ehorzketarekin**, 2026ko Bilboko Aratusteei amaiera emanaz hurrengo urtera arte.

FAROLIN ETA ZARAMBOLASEN ATXILOKETA, EPAIKETA ETA JENDAURREKO ZIGORRA

Bikotearen unerik nabarmenetako bat **Farolin eta Zarambolasen atxiloketa, epaiketa eta jendaurreko zigorraren ekitaldia** izango da, **otsailaren 13an, ostiralean**. Ekitaldia **18:15ean** hasiko da **Arriaga plazan**, atxiloketarekin, eta jarraian **19:00etan, Plaza Barrian**, epaiketa eta zigorraren ekitaldia egingo dira.

Ekitaldi hau jaietako ardatz Nagusia da, eta 1984an sortutako ekimen baten emaitza da, gure Aratusteetan tradiziozko eta landa eremuko karnabaletako elementurik adierazgarrienetako bat txertatzeko helburuarekin; bertan, urteko “gaiztoak” epaitu eta kondenatzen ziren.

Bilboren kasuan, gaiari **txirene** kutsua ematea erabaki zen, ongiaren eta gaizkiaren arteko dikotomia saihestuz, eta tonu umoretsuko aitortza baten alde eginez, bilbotarren nortasun arketipikoaren dualtasuna agerian uzteko asmoz.

